

SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2024

1. Sorogaingo bazkalekuen 2024ko aprobetxamenduaren arauak

- a) Erroibarko abeltzain interesdunek aziendak Udal Idazkaritzan apuntatuko dituzte 2024ko apirilaren 1a baino lehen, eta horretarako prestatutako eskabidea aurkeztuko dute. Abeltzain bakoitzeko ALU kopurua gehienez ere 70 ALU izanen da.
- b) Erroibarko abeltzain interesdunek, abereak larreetan sartu baino lehen, legez eska daitezkeen osasun-ziurtagiriak Udal Idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte .
- c) Azienda-markak honako ordutegi eta tokietan izanen dira:
 - Udaberriko marka: 2024ko Maiatzaren 11n, 9:00etatik 14:00etara, Sorogaingo eskortan.
 - Urepeleko marka: 2024ko maiatzaren 25ean, 10:00etatik aitzina Urepelen.
- d) Aziendaren antolaketa:
 - A) Erroibarko azienda maiatzaren 11n markatuko da. Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu edo larreen bolumenaren kalitateak gomendagarria egiten badu, Erroibarko Udalak azienda sartzeko datak aldatzea erabaki ahal izango du.
 - B) Azienda maiatzaren 11tik aitzina sartuko da Sorogainen.
 - C) Data hori baino lehen debekaturik dago azienda Sorogaingo bazkalekuetan sartzea.
 - D) Udaberriko marka egunean Sorogaingo larreetan sartzera datorren ibarreko azienda egun hori baino bi egun lehenago egon ahal izango da Sorogainen, eta bakarrik Arbilletan, baina nahitaez markaren egunean jaitsi beharko da eskortara.
 - E) Markaren egunean ez da aziendarik markatuko karroetan.
 - F) Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

e) Sorogaingo bazkalekuen 2024ko kanonak hauek izanen dira:

A) Ibarreko azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda	33,00 €.
b. Zaldi-azienda	43,00 €.
c. Ardi-azienda	4,3 €.
d. Belar erdia (uztailak 15)	2,15€
e. Ahuntz-azienda	4,30 €.

2. Markaren egunean markatzen ez diren azienda guztiak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, ostiraletan eta astelehenetan bakarrik markatuko dira, 8:00etatik 14:00etara, Sorogaingo mahukan (etxeko mahuka), eta %10 gehiago kobratuko zaie. Modu berean, azienda aldaketak egiten dituztenei %10 gehiago kobratuko zaie.
3. Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den azientaren prezioaren %50 urteko apirilaren 30a baino lehen ordainduko da. Ordainketa azienda sartu baino lehen egin behar da. Gainerako %50 urteko uztailaren 31 baino lehen ordainduko da.
4. Kopuru horiek ordaintzen ez dituenari Udalak ez dio NPBrako hektarearik ziurtatuko, eta hurrengo urtean ezin izango du azientarik sartu Sorogainen.
5. Belar erdira (uztailak 15) sartuko den azientari dagokion kopuru osoa ekainaren 30a baino lehen ordainduko da.
6. Irailaren 1etik aurrera sartzen den ardi azientari 1,3€ kobratuko zaio buru bakoitzeko, eta kanona abuztuaren 31 baino lehen ordaindu beharko du.
7. Erroibarren bizi diren 30 urte edo gutxiagoko abeltzainek eta abeltzain ustiategi baten titular gisa 4 urte edo gutxiago daramaten abeltzainek %10eko murrizketa izanen dute Udal honek ezarritako kanonaren gainean. Era berean, abeltzaintzan nagusiki ari den abeltzain emakume orok % 10eko murrizketa izanen du Udal honek ezarritako kanonean.

B) Frantses azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda	71,00 €.
-----------------	----------

2. Baigorriko Ibarreko sindikatuak Sorogainen sartuko den azientaren zerrenda eta kanona aurtengo maiatzaren 15a baino lehen ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.
3. Urepeleko Marka egunean Sorogainen sartzen den frantziar azientaren %75 gutxienez oinez joan dadila markaren egunean, eta gainerako azienda Sorogainera kamioietan joan dadila, Baigorriko Sindikatuaren baimenarekin.
4. Era berean, markaren eguna ez den beste batean azienda sartzen duten frantziar abeltzain guztiak ezarritako kanonaren gaineko %20ko errekarua ordainduko dute. Kasu horietan ezin izanen da inolako justifikaziorik alegatu.
5. Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

C) Kanpoko azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda	71,00 €.
-----------------	----------